

Jaiotzetiko desgaitasuna eta eratorria: errealitate partekatuen giltzarriak

Tesiaren egilea: Juan Ramon Alberdi Ibarmia

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila/Institutua: Politikako Zientzia eta Gizartea saila

Doktorego-programa: Gizartea, Politika eta Kultura

Jakintza-arloa: Politikako Zientzia eta Gizartea

Tesi-zuzendaria: Aitzpea Leizaola Egaña eta Melania Moscoso Peréz

Tesiaren laburpena:

Tesi honetan jaiotzetiko desgaitasunaren eta eratorritakoaren arteko alderaketa egiten da, nolabait desgaitasuna duten pertsonen partekatutako errealitatea bistarazteko xedearekin. Ikerketa-bide hori hartzearen zioa, interes zientifiko eta sozialaz gain, ardura pertsonalak bultzatu du, ezen duela hamasei urte eratorritako desgaitasuna edukitzeaz gain, jaiotzetiko desgaitasuna duen mutil gazte baten aita ere bainaiz.

Desgaitasuna terminoaren sorrera finkatzeko asmoz, XIX. mendearen bukaeran eta XX.aren hastapenetan kokatu dugu, industrializazio bortitzak eta Lehen Mundu Gerraren sarraskiek utzitako albo-ondorioak deskribatzeko baliatu zelako, horrela norbanako produktiboak eta produktiboak ez zirenak bereiziz. Jaiotzetikoak diren edota gerora eratorritako gabezia fisiko, psikiko, sentsozial eta intelektualak hartzen ditu bere baitan. Horregatik, desgaitasuna fenomeno biopolitikotzat hartu dugu, Estatuak herritarren bizitza-kondizio eta aukeretan ezarritako kontrolaren emaitza delako. Hori guztia gauzatzeko, gizartean normaren langa bereizlea zedarritzen da, zeinean legedia normal/anormal terminoen esanahian eta gorputz eredugarrien inposaketan funtsatzen den.

Estrategia politiko horren ondorioz, desgaitasuna duten pertsonenganako identitate negatiboa hautematen da gizartean; alde batetik, Foucault-en «dispositibo»aren lerroari jarraikiz, mendekotasunezko jokabideak ezarri; eta bestetik, mendekotasun hori onarrarazten duen «habitua» sorraraziz. Horrek guztiak gure gizartean oinarritzekoak diren jardueretan desabantailak eragiten ditu, eta oinarritzekoak diren kapital ekonomikoa, kulturala eta soziala lortzeko aukerak murrizten zaizkie: arlo ekonomikoan, lan-merkatuan sartzeko aukera murriztetan eta jasotako laguntza ekonomikoen eskasian; arlo kulturean, hezkuntza bereziaren bidezko segregazioan; eta arlo sozialean, harreman sozialak edukitzeko zailtasunean, edo harreman sexu-afektiboak eraikitzeke oztipoetan. Alboratze horri aurre egiteko orduan, terminologia egokiagoaren aldeko aldarrikapenak izan dira nabarmenenak, zeina «politikoki zuzena den hizkuntza» gisa ezagutzen den. Alabaina, lan honetan mintzaira horren aurkakoa den «crip teoria»rekin bat egiten dugu, desgaitasunaren

errealitatea gardenago islatzeaz gain, desgaitasuna duten pertsonen ahalduntze bideak ere irekitzen dituelako.

Planteamenduteoriko hau desgaitasuna duten pertsonen errealitatean txertatzeko, behaketa parte-hartzailea egin dugu desgaitasunaren inguruan mugitzen diren elkarteetan. Horrez gain, hamasei elkarriketa ere egin ditugu, generoa, adina eta desgaitasun mota (jaiotzetikoa eta eratorria) kontuan hartuta. Eta tesiaren inplikazio pertsonala dela medio, nire autoetnografia ere landa-laneko informazioarekin tartekatzen joan da. Aipatutako osagai guztiekin jaiotzetiko desgaitasuna duten pertsonen eta desgaitasuna gerora eratorri zaien arteko eraketa egiten da, berdinean dutena lokalizatuz eta desberdintasunak azpimarratuz.